

# Noaia !!

www.noaia.com



Etxean dira Bruño ahizpak

Datorren urteko jaietarako  
gutxiago falta da



KOMERTZIAL DISEINATZA  
NOAUA!

## KOMERTZIAL DISEINATZAILEA BEHAR DA NOAUA! KULTUR ELKARTEAN IRAILETIK AURRERA

**FUNTZIOAK:**  
NOAUA! astekariko eta noaua.com webguneko publizitate-arduraduna.  
Eginbehar nagusiak: publizitatea lortu, publizitate moduloak diseinatu eta bestelako diseinu lanak.

**PROFILA:**

- Publizitatean lizentziatua (baita azken ikasturtean matrikulatutakoak ere) edo diseinu ikasketak eginda izatea.
- Usurbildarrek lehentasuna izango dute.
- EGA edo baliokidea den agiria izatea baloratuko da.
- Gida-beimena izatea baloratuko da.
- Komunikatzaile ona eta teknologie berrietan trebatua izatea.

**ZER ESKAINTZEN DA:**

- Lau orduko lan-saioa gizarte segurentzarekin.
- 6 hilabeteko kontratua, lutzazeko aukerarekin.

Curriculum-ê uztailaren 26a baino lehen ekurri edo bidali.

NOAUA! Kultura Elkartearen Bontziabari 3-22179 Uleku. || [irratzi-elkartea@noaua.com](mailto:irratzi-elkartea@noaua.com) | [www.noaua.com](http://www.noaua.com)



**MAHUKA**  
etxebeste 3 - ☎ 943 361 106

FISIOTERAPIA ZENTROA



## Ibaiondo

Fisioterapia  
Errehabilitazioa  
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk.  
LASARTE - ORIA  
Tel / Faxes: 943 370 306  
[fisioibaiondo@gmail.com](mailto:fisioibaiondo@gmail.com)

**Albisteak iruditan !!**

# Donostiako Plan Orokorrearekin haserre

**D**onostiako Plan Orokorreko Bulegoko teknikariek hiriburuko plana eta Zubietarako planteatzen dituzten egitasmoen berri ematera joan ziren Zubietara, uztailearen 7an. Hiribururako proposamen orokorrak euskaraz aurkeztu ondoren, erabat aldatu zen hizlarien hitz egiteko modua; herritarren eskaerei kasurik egin gabe, erdaraz eta ezer gutxi esanez, Zubietako egitasmoen inguruan.

Herritarrak haserre eta kexu ziren, gero, galderen tartean, behar besteko erantzunak ez zituztelako jasotzen. Kexu, Plan Orokorrean irudikatzen den Zubieta nahi ez dutelako. Bertan kokatu nahi dituzten makroartzela edota erraustegiaren aurkako aldarrikapen guñe bihurtu zen ekitaldia.



ZUBIETAKO FRONTOI ATZEKO LOKALEAN BURUTU ZEN AURKEZPENAK INTERES HANDIA PIZTU ZUEN.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarteak Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publicitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

BRUÑO AHIZPAK KALEAN DIRA **5. OR.**

SANTIXABELAK IRUDITAN **9. OR.**

LEGEALDIKO BALANTZEA, ARALAR **14. OR.**

PEÑAGARIKANORI OMENALDIA **16. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal Herreria!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# Maribel Bruño: “Injustizia handi bat izan da guztia”

**I**njustizia handi bat izan da guztia. Horiek izan ziren Maribel Bruñok Alcalako espetxea (Madril) utzi berritan egin zituen lehen adierazpenak. Bizi behar izan dutena sinestezina egin zaiola ere esan zuen Maribelek, Bruño ahizpetako batek. Dagoeneko etxean dira.

Uztailearen 7an atera ziren kalera. Euskadi Irratiak jaso zituen lehen adierazpenak eta, aste honetako aldizkaria ixtear ginela, horiek dira albiste hau osatzeko baliatu dugun informazio iturri nagusia.

## MARIBEL BRUÑO

“Zur eta lur geratu ginen atxiloketa egunean, ez genuen ezer ulertzen, beldur handia genuen...”

Azken hilabetea fikziozko egoera batean pasa duela adierazi zuen Maribel Bruñok: “Ekainaren 10eko gauan eraman gintuzten. Orduetik egunak luze joan dira. Nik sentitu dudana behintzat, fikziozko egoera batean egon garela. Ez

zarela ondo kokatzen. Sinestezina egiten zitzaigun”, Maribel Bruñoren hitzak dira hauek.

## “Mehatxupean, borondateak lekurik ez du”

Euren borondatez 6.000 euro ordaindu zutela, hori leporatu zien Baltasar Garzon epaileak eta horregatik eman zuen bi ahizpak espetxeratzeko agindua. Euskadi Irratiako Maite Artola kazetariak horixe bera galde egin zion Maribel Bruñori, espetxetik atera berritan. Eta Auzitegi Nazionalean adierazi zuena berretsi zuen Maribelek kazetariaren aurrean: “Ez genuela ordainketa hori egin esan genion. Mehatxupean, borondateak lekurik ez du. Ezezkoa esan genuen bere aurrean, guk ez genuela gure borondatez ezer ordaindu”.

Atxiloketa eguna ere ondo gogoan dute bi ahizpek. Maribelek Euskadi Irratiari egindako adierazpenetan adierazi zuenez, “Guardia Zibila gure etxetan agertu zenean susto handia hartu genuen”. Gertatuko zena sumatu ere ez zutelako egiten: “Izugarria izan zen hainbeste Guardia Zibil etxean agertu eta atxilotu gintuztenean. Zur eta lur geratu ginen, shock egoera batean, ez



BRUÑO AHIZPAK UZTAILAREN 7AN, BIEN ERDIAN ABOKATUA.

genuen ezer ulertzen, beldur handia genuen...”.

Maribel zein Blanca Bruño behin behineko egoeran askatu zituzten San Fermin egunean, Baltasar Garzon Auzitegi Nazionaleko epaileak ezarrirako 20.000na euroko fidantza ordaindu eta gero. Bi baldintza hauek bete behar dituzte orain: astero epaitegira joan behar dute sinatzera eta Estatutik kanpo ateratzea ere galarazi egin diete.

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

**LATAILLADE** **ITURGINTZA**

GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

**JOSETXO IKATZETA**

Iturgintza

TELF: 943 36 20 26  
687 95 12 25

Papera jartzea eta  
Pinturak orokorrean

**FERNANDO  
PINTORAK**

943 366 019  
943 363 460

Kale Nagusia 1 · USURBIL

**txirriStra**

KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

**TABERNA**

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

## San Juanei errepassoa



**K**onturatzerako jada Usurbilgo bi festa handi joan zaizkigu aurtengon: San Juanak eta Santixabelak. Ondo joan al dira? Ziur nago baietz. Hau guztia dela eta oraingo kronika honetan aurtengo San Juanen errepasso txiki bat egitea pentsatu dut.

Esan bezala, jada San Juanak igaro dira eta oso ondo gainera. Ostiral gauean, hilak 20, jende ugari hurbildu zen Kalezarreko plazara erromeriaren giroan, dantzara eta edatera. Larunbatean, hilaren 21ean, oilasko biltzailerak ibili ziren Kalezarreko baserri eta etxetan barrena, gazte asko bildu ziren bertan eta bero ederra pasa zuten gaixoek. Larunbatean bertan mus txapelketa ere ospatu zen eta esan bezala, bero izugarria egin zuen arren, bikote ugari animatu ziren bertan parte hartzera. Gau aldera ordea euria hasi zuen, baina hala ere herria festa giroa hurbildu zen Kalezarrera, ez gutxi gainera!

San Juan eskea ere arrakastatsua izan zen, urtero bezala herritar dezente animatu baitzen San Juan bezperan egiten den festa honetara.



Azkenik San Juan egunean arratsaldean ere plaza tope-raino bete zen Saizarrek eskaintzen duen sardina eta sagardo dastaketara.

Badakit ez ditudala gainontzeko ekitaldiak aipatu, baina ziur nago gainontzekoak ere arrakasta izango zutela. Beraz, gora aurtengo San Juanak eta zorionak bertan parte hartu duzuen guztioi!

SANTUENEA

PAKO AGUDO

## Auzoan hondartza



**Z**erura begiratu ez genuke esango uda iritsi zaigunik, baina dagoeneko Santixabelak ere joan zaizkigu. Eguzkiak egun gutxitan bisitatu digun arren, orain dela egun gutxi, ostiral batean, auzora sartu eta bertan eskubaloi zelaian hondartza batekin topatu nintzen. Era berezia eta polita umeak oporretan daudela ospatzeko. Mahai luzea jarrita sonbrila azpian, auzo berri bat eraikitzeke hondarra, igerilekua umeak jolasteko tamainakoa eta hori gutxi balitz, ura botatzeko pistola bana.

Pistolak urez bete eta hasi zen festa! Gaztetxoentzat zaila zen festa honen esanahia ulertzea eta horrela hasi ziren banan bana amonarengana bueltatzen bustita, negarrez eta amaren beldurrez. Beraien bizitza laburrean zenbat alditan errieta egin diete bustitze-agatik eta orain beraiei busti diete. Umeen bizitza, azken finean, ez da oso ezberdina, gurearekin alderatuta. Egin behar ez dena eginez gero prest egon behar gara umeak bezala tratatzen gaituztenen errieta jasotzeko. Udak etortzen diren bezala, horrelako guda askotan borrokatu beharko dute oraindik gure gaztetxoek.

Besterik gabe uda labur, ero eta bakarra izango den honetaz gozatu, berezia izango baita guztiak bezala.

ATXEGALDE

ARITZ GORRITI

## Auzoko jaiak, gertu

**H**amabost urteren buruan, iaz itzuli ziren Atxegaldera auzoko jaiak. Esperientzia bikaina izan zela ikusita, Jai Batzordeak abuztu amaieran saiakera errepikatzeke asmoa du. Jada, asteak daramatzate garai bateko auzo elkarteko egoitzan biltzen. Jaien prestaketekin lotuta, laguntza eske jo dute, iaz bezala, auzotarrengana. Atariz atari, pisuz pisu, atez ate. Antolatzaileei ongi etorria egiten zienak ez zuen edonolako giroarekin topo egiten. Trikitixa pieza ederra entzun, eta jai giroa etxe atariraino ekarri zuten Jai Batzordekoek. Modu horretan eskatuta, nork ukatu laguntza?

Bidean datoz jada, jaiak. Hilabete eta erdi eskas baino ez, iazko jaiak errepikatzeke. Eta iazko abestia entzuteko, gaztetxoek jokoetan zer ondo pasatzen duten ikusteko, musean jokatzeko, musika emanaldietan dantza egiteko... Azken finean, adin tarte guztietako auzotarrek zein Atxegaldera hurbiltzen direnek primeran pasa dezaten. Zazpi aste... eta bueltan datoz festak!



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Kubako judo selekzioko neskek



Zorte handia izan dugu halako kirol maila handiko jendea Usurbilera iritsi izanarekin. Pekineko Joko Olinpikoetarako bidean, Euskal Herriatik pasatu dira Kubako Judo Selektioko neskek, hemengo –Euskal Herriko selektioko- nesken kontra lehiaketa egiteko. Ondoren, Katalunia aldera joan behar zuten.

Astebete egin dute Kubatik etorritako hamabost kirolari eta teknikariek Usurbilen Atxega jauregia ostatu hartuta eta egun horietan bertako kiroldegian herritarrok gozatzeko aukera izan dugu, maila handiko kirolariek entrenamenduak denon bistan egin dituzte eta.

Teknikarientzako hitzaldiak ere eman dituzte Sutegiko aretoan. Hitzaldi hauek batik bat prestatzaileentzako ziren, kirolaz badakitenentzako.

Hala ere egun handia larunbata izan zen, ekainaren 21a. Arratsaldeko 6etan Euskal Herriaren eta Kubaren arteko lehia ederra ikusi genuen. Nahiz eta kubatarrek nahiko erraz irabazi ziguten euskaldunoi.

Bukaera emateko, nola ez, afari eder bat. Aginagako Sekaia erretze egin genuen. Hemen ere giroa benetan goxoa izan zen. Kubako taldekoek gain, euskal kirolari batzuk, Usurbilgo udaleko hautetsiak, lehiaketan parte hartu zuten epaileak eta



herriko Judo Klubeko arduradunak ere egon ziren afaritan. Herriko “Txerriki” taldeak antzerki laburra ere eskaini zien.

Bitxikeria bat esateagatik, Kubako taldeko burua den Arnaldo Goitiak taldeko neskei –jokalariei alegia- ez zien ardo trantta bat probatzen utzi eta gogoarekin gelditu behar izan zuten. Kirolariaren ikuspegitik, ulergarria dirudi, ikusita eliteko mailako jokalaria direla. Baina afaritan ziren gainontzeko kubatarrek, medikuak, fisioterapeutak, psikologoak, horiek bai, urteko ardoarekin gurekin topa egin zuten elkarri agur esateko.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

## Uda honetako panorama



Jada pasa zaizkigu festak, aurtengoan aste osoa izan dugu gainera eta uztaila aurrera doa, festak hemen, festak han nonahi bada zer ikusi eta zer disfrutatua. Jende ugari oporretan da eta oraindik nabarmendu ez arren, kanpora jende askok irtetzen jarraitzen du nahiz eta dirurik ez egon. Oraingoz ondo bizi gara eta luzaroan honela izatea espero dut. Neronek irailean eskapadatxo bat egitea espero dut.

Uda hau, giroari begiratuta, oso baina oso aldrebesa dihoa; ez du egun oso batzuetan eguraldi onik egiten, alderantziz 16 gradutatik 29ra pasatzen da egun batetik bestera eta hau ez da osasuntsua eta gainera, geroz eta gehiago afektatzen digu eguraldiak pertsoneri, naturari eta bizia duen guztiari.

Goizean esnatu eta egun eder bat dagoenean sekulako indarra eta energiarekin aritzen gara, baina uste dut aurtengo udaran txipa aldatu beharrean gaudela eta egiten duen eguraldi eskaxa alde batera utzi eta denetarik egiteko planak egin beharrak daudela. Hemen geratzen garenoi animo eta gainontzeko guzti guztiei ondo ondo pasa eta disfrutau zauden lekuan zaudela.

Ondo pasa udara eta laster arte.

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

## A zer lan polita egindakoa!!

Lchengo larunbatean auzolana egin zen Zubietan. Amiritik hasi eta plazaraino garbitu zituzten bide bazterrak. Goizeko bederatzietan hasi ziren lanean eta eguerdiko ordu beranduetan amaitu zuten. Jendea bildu zen, hogeit bat pertsona edo, behar bada gutxiegi zegoen lana egiteko, baina bai egin ere.

Bide bazter guztiak garbitu zituzten, eskuetan aitzurra, sardea, belarra moztekoa, traktoreak... zituztela.

Hamaikak aldera ume txikiak bezala, indarrak berreskuratzeko, hamaiketako egin zuten. Ikastolan bezala ordu erdi bat atsedean eta berriro lanera. Dena txukuntxukun amaitu zuten (hamaiketako izango zen!).

Bestalde, aipatu beharra dago, Zubietatik Santuenerainoko bide bazterra, zikin dagoela. Orain dela hilabete edo gehiago makina bat pasa zen “sasiak garbitzen edo...”, eta belar guztiak ubideetan utzi zituen. Oraindik garbitu gabe dago eta ez bada garbitzen sasi (jadanik batzuk sortu dira) eta putzuak sortuko dira, ustel usaina zabalduz. Ea Usurbilek ere Zubietarengandik zer edo zer ikasten duen.

Dena den eskerrik asko herria zaintzen duen zubietar guztiei.



# Jai giroan hasi da Udajolas

**S**antixabelak amaitu orduko San Fermin Txiki eguna ailegatu zen Usurbila. Uztailearen 7an entzierro eta guzti ospatu zuten egun batzuk lehenago hasi zen Udajolas, 3-10 urte arteko gaztetxoei zuzendutako udako aisialdi eskaintza. Hila bukatu artean, egunero, parte hartzaileek primeran pasatzeko aukera berri bat izango dute. Aurtengoan, Udalak eta NOAA!k elkarlanean antolatu dute ekimena.

Uztailearen 7an, San Fermin egunez, Iruñean lehen entzierroan parte hartu zuten ehunka korrikalarik. Ordu batzuk beranduago, eguerdian, Usurbilgo gaztetxoek hartu zieten lekukoa korrikalari beteranoei. Zapi gorria lepoan, kamiseta zuria soinean Artzabalgo zelaiko bidezidorrak bizi-bizi zeharkatu zituzten, gune hartako parkera ailegatu artean. Aurten, Udalak eta NOAA!-k elkarlanean antolatu duten Udajolas aisialdi eskaintzako arduradunek Santixabel jaien osteko lehen egunerako prestatu zieten ezustekoa izan zen. Eta primeran pasa zuten.

Jai giroan hasi dute beraz, Udajolasen izena eman duten hiru eta hamar urte arteko laurogeitik gora gaztetxok eta hamaika monitoreek. Santixabeletan antolatutako Haurren Eguneko ekitaldietan parte hartu zuten. Gaztetxoek protagonista nagusi gisa zituen oilasko biltzaileen eguna ere ospatu zuten, ibilbide txiki bat osatuz trikitilarien laguntzarekin.

## Irteerak eta jolasak

Herriko jaiak eta San Fermin eguna igaro ostean, ondo pasatzeko asmoak aurrera jarraituko du datozen asteetan. Herrian egingo dituzten ekintzak kanpora burututako irteerekin tartekatuko



UZTAILAREN 7AN, "ENTZIERROAN" IBILI ZIREN UDAJOLASEKO GAZTETXOAK ETA BEGIRALEAK.

dituzte. Beti ere eguraldiak laguntzen badu, hondartzara joango dira. Añorgan kokatua dagoen Rezola museoa ere bisitatzeko asmoa dute. Helduenek San Estebanera bi egunetarako txangoa egingo dute. Eta azken egunean, herriko gune desberdinetara eramango dituen altxorren bila joko ezagunean parte hartzeko aukera izango dute.

Ekintza gehienak aire librean egiten dituzte baina, ustekabean, euria agertuko balitz, Udarreki ikastolako erdiko aretoa izango dute eskura.

Udajolaseko eskaintzan parte hartzen duten gaztetxoek adin tartea zabala dela aintzakotzat hartuta, ekintzak egokitzen dituzte. Gazteenei zuzendutako eskaintzaren artean, marrastu edota eskulanak egitea daude. Helduenek aldiz, mugikortasun handiagoko jolasak nahiago. Uraren eguna edota hondartzara joatea asko estimatzen dituzten proposamenak izan ohi dira.

## Helburua? Ondo pasatzea

**U**dajolasen dauden guztiak helburu komun bat dute; udako oporraldi luzean, ondo pasatzea. Gainera, Udajolasen hilabete gehiagoz luzatzen du, urtean zehar, ikaskide direnen arteko lotura. Hain zuzen, ekimenean izena eman duten gaztetxo gehienek irailetik ekainera arte Udarreki ikastolan ikasten dute. Elkarren artean ezagutzen dira, elkarren lagunak dira asko eta asko. Udajolas, eguneroko dinamika horretatik kanpo jolastu eta elkarrekin egotera bideratutako aisialdi eskaintza da. Horregatik, taldeak osatzera koan ere, ikaskideek zer irakasle izan ohi duten kontuan izan dute. Eguneroko lau orduko eskaintzan, ahalik eta ondoen pasa dezaten.

Illepaindegia eta Solarium-a

**Ioli Lizarralde**

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiurrenea, 5B ☎ 943 361 971

illepaindegia

ZUBIURRENEA 4, USURBIL

943361951

mistoa

LAUKOTE

OKINDEGIA

KAFETEGIA

Puntapasa kalea, 16 behea (Artzabal) 943 36 09 80



## Partehartze handia Pintura Lehiaketan

**Z**er botatzen duzue faltan Usurbilen? Hori da Jai Batzordetik herriko 2-16 urte arteko herritarrei zuzendu zieten galdera. Eta 400 gaztetxok Pintura Lehiaketan marraztuz erantzun zieten ekainaren 30ean.

Bidegorriak, ludoteka, arraun taldea, gune berdeak, zooa edota txirristra zaharra. Herriko 2-16 urte arteko gaztetxoek Usurbilen faltan botatzen dituzten gauzak dira. Ekainaren 30ean, Santixabel jaien barruan, Jai Batzordeak antolatu zuen Pintura Lehiaketako partaideek egin zituzten margolanetan ageri ziren. Giro ederrean aritu ziren norbere sormena lantzen, laurehun bat gaztetxo.

Lanak egin ostean, onenak saritzeko ardura zuen honako epaimahaiak: Alejandro Tapia Usurbilgo margolari ospetsuak, Nerea Erauntzetamurgil kultura zinegotziak eta guraso batek.

Bide batez, ekimena Tapia margolaria eskertzeko ere baliatu zuten. Udalak "Mandarin Dotore" liburuaren ale bat eman zion esker gisa. Zirriborro tailerrek, berriz, Udalarai tailerrean bertan egindako koadro bat oparitu zion.



PARTEHARTZE ZABALA IZAN DU AURTENGO PINTURA LEHIAKETAK. GUZTIRA HERRIKO 2-16 URTE ARTEKO 400 GAZTETXO ARITU ZIREN, HERRIAN FALTAN BOTATZEN DUTENA MARRAZTEN.

### Hauek izan dira aurtengo saridunak

2, 3 eta 4 urte artekoen artean:

Amaia Labaien.

5 urtekoen artean: Pello Ibargoien.

6 urtekoen artean: Aitor Zubelzu.

7 urtekoen artean: Iñigo Arzallus.

8 urtekoen artean: Jon Ibargoien.

9 urtekoen artean: Garazi Martikorena.

10 urtekoen artean: Irune Etxabe.

11 urtekoen artean: Ander Etxeburua.

12 urtekoen artean: Aroa Etxeburua.

13 urtekoen artean: Amaia Zubelzu.

14, 15 eta 16 urte: Andrea Descalzo.

## Zintzilikario ikusgarriak

**D**uela 25 urteko jaiak gogoratu nahian, urteroko zaindari lana egiten duen maskotari, apaingarriak erantsi dizkiote aurtengoan.

Elizako kanpandorra erreferentzia puntu gisa hartuta, zintzilikario luzeak jarri zituzten Dema plazan eta garai batean txirristra zegoen lekuan. Santixabelak hasteko ordu batzuk falta zirela, gerora sei egunez jai gune nagusia izan dena itxuraldatzea lortu zuten. Apaindu eta bizitasuna eman zioten. Jaietan egon garela jabetzeko adierazgarri garrantzitsua izan dira.



## Txerriki taldeak Sutegi bitan bete zuten

**K**omunitate bateko elkarbitza ez da erraza izan askotan. Ezta “Etxe-Berri”-n, Txerriki Usurbilgo antzerki taldeak Santixabel jaietarako prestatu zuen lanean ere.

Adin guztietako hamasei bat bizilagun ditu “Etxe-Berri”-k. Bakoitzak bere bizimodua, egunerokotasunean gertatzen diren istorioak kontatzen zituzten, umore ukitu handiz Txerriki antzerki taldean parte hartzen duten herritarrek. Ez ziren falta, seme-alabekin bizitzera joandako ama, gazteak, urte asko lanean zeramatzen ate zaina, adineko hiru emakumeak...

Haien ateraldiek barre ugari eragin zuten, ikus-entzuleengan eta une batzuetan baita aktoreengan ere. Oinarrizko dekoratu batetik abiatuta, aktoreen lan bikainak azalerazi zuen nolakoa den “Etxe-Berri”. Eta zer modutakoa baita, Txerriki antzerki taldea bera ere. Ikus-entzuleak oso



EGURALDI TXARRAGATIK, TXERRIKI ANTZERKI TALDEKOEK SUTEGIN SAID BIKOITZA ESKAINI ZUTEN, ETA BITAN BETE ZUTEN ARETOA.

gustura utzi zituztela esatearekin nahikoa izango da.

Pena bakarra euria egin izana. Artzabalen programatua baitzegoen ekitaldia, baina eguraldi txarrak

Sutegira mugiarazi zituen Txerriki taldekoak eta antzezlanak ikusi nahi zuten ikus-entzuleak. Bi saio eskaini zituzten, lehenengoa denek ez baitzuten ikusterik izan.



**MURALA.** Jaiaren hasieran margotu zuten murala. Gai librean, erraustegiaren aurkako edota Santixabelen aldeko aldarrikapenak idatzi eta marraztu zituzten herritarrek.



**HELDUEN DANBORRADA.** Azken hilabete eta erdian prestatzen aritu ostean, bitan irten ziren danborjole helduak herriko kaleak girotzera. Eta baita lortu ere.



**TXUPINAZIOA.** Jaiak hasteko suziri ofiziala botatzeko ardura bikoitza izan zen azkenean; Olatz Altuna eta Joan Mari Torrealdai herritarrena hain zuzen.

## Oilasko biltzera, jaietako egunik beroenean

**E**r-raza zen asmatzea: uztailaren 4an eguzki izpiek errezituztenak atera ziren oilasko biltzera. Bi taldetan banatuta egin zuten herri inguruetako ibilbidea, jaietako egunik bero eta eguzkitsuenean.

Bero handia egin zuen oilasko biltzaille egunean eta eragin zuzena izan zuten goiz pasa irten ziren herritarrengan.

Goizean goiz txokolate gozoa dastatu eta abiatu ziren bi taldeak. Batzuk Urdaiaga aldera, besteak Arratzaindik Aginagara. Eguerdia parterako denak elkartu eta bazkaritarako bildu ziren. Arratsalde partean, jokoetan nahi adina entretenitu ziren.

Parrandarekin jarraitzeko prest zegoena, etxera joan, arropaz aldatu eta jaietz gozatzen jarraitu zuen.



UZTAILAREN 4AN AURPEGIA  
GORRITUA ZUENAK OILASKO BILTZERA  
ATERA ZEN SINTOMA GARBIA ZUEN.  
PRIMERAN PASA ZUTEN.



**Olatzen ongi etorrian,  
espetxean geratu  
direnak gogoan**

**E**kainaren 18an aske utzi zuten Olatz Altuna herritarrak ongi etorri beroa jaso du Santixabel jaietan, Askatasuna Plazan burututako ekitaldian. Agur dantza, bertso eta txalaparta saioekin. Senide, lagun eta herritarrez inguratua.

Santixabel bezperan, ongi etorri ekitaldi sentikorra jaso zuen Olatz Altuna herritarrak Askatasuna plazan. Ondoan zituen senitarteko, lagun eta herritarrak. Agurra dantzatu zioten, txalaparta saioa ere izan zen, eta makilak opari gisa jaso zituen. Baita bertso saioa ere.

### Jaien hasieran

Jarraian, herri afari jendetsua burutu zen Askatasuna plazan bertan. Eta Joan Mari Torrealdairerkin batera, Altunak berak eman zien hasiera jaietara, gauerdian udaletxeko balkoietik txupinazoa jaurtita.

18/98 makrosumarioan auziperatua, abendu hasieran espetxeratu zuten Altuna. Ekainaren 18an fidantzepean aske geratu zen. Goizaldeko ordu txikietan Usurbila ailegatu zenerako, herri sarreran zain zituen senide, lagun eta herritarrak. Orduko hartan ere, omenaldi hunkigarria jaso zuen Altunak, sei hilabetez espetxeratu eta gero.



**POLONIAKO DANTZARIAK.** Atzerriko kulturen topagune ere izan dira herriko jaiak. Poloniarren dantza saioaz gozatzeko aukera aparta izan zen uztailaren 3an.



**DJ LARRA.** Herriko musika jartzaille ezagunenak aurtengoan ere ez du hutsik egin. Santixabel bezperan Artzabalen eta Haurren Egunean frontoian, denak dantzan jarri zituen.

## Santixabeletako balorazioa egiteko, astelehenean bilduko da Jai Batzordea

**J**aiak igandean bukatu ziren. Ondo egon diren gauzak gogoran hartu eta zuzendu beharrekoak aztertzeko bilera deitu du Santixabeletako Jai Batzordea. Bilera datorren astelehenean izango da, uztaileak 14, 19:00etan Sutegin.


Jai Batzordeak aditzera eman duenez, "garrantzitsua iruditzen zaigu jaien balorazioa egitea ondo egindakoak mantendu eta hobetu beharrekoak bideratzeko". Urtean zehar Jai Batzordean izan diren herritar eta taldeen artean ebaluazio-orria banatu dute. Orri hori uztailearen 14an aurkeztu beharko dute, arratsaldeko 19:00etan Sutegiko erakusketa aretoan egingo den bileran. Aipatzekoa da bilera hau irekia dela, Jai Batzordeko kideez gain herritar guztiak ere gonbidatuta daudela.



SKATE ETA ANTZEKO KIROLEK JARRAITZAILE ASKO DITUZTE. LARUNBATEAN JENDE ASKO BILDU ZEN FRONTOIAN.



**PIRAGUA.** Eguraldi txarra gaindituz usurbildar kortsarioak ibaian gora eta behera ibili ziren.



**ZALDIAK.** Lehen aldiz, zaldi lasterketak egin dira jaietan. Lastima eguraldia. Ikuskizuna ederra izan baitzen.



**GOITIBEHERA JAITSIERA.** Zazpi goitibehera, zitzu bizian ibili ziren Harane atzeko aldatatik behera.



**PASTORALA.** Hasiera batean, udan pastoral bat Sutegin antolatzea ez zirudien ideia ona zenik. Baina bete-betean asmatu zuten. Aretoan jende asko eta giroa ederra.



**MORAU.** Morau kantariari jaietako azken egunean jotzea tokatu zitzaion. Piper-jatearekin bat egin zuen kontzertuak eta txantxetan aritzeko baliatu zuen hori Hernaniko kantariak.



**ZANPANTZARRAK KALEJIRAN.** Zanpantzarrek kaleak girotu zituzten igande eguerdian. Ordu berean, zaldi lasterketak jende ugari bildu zuen ikastola aurreko zelaian.

# Argindarra, uztailetik garestiago

**A**rgindarra uztailetik aurrera %5,6 garestitu da. Eta ez da ahaztu behar igoera honekin, aurten %8,9 egingo duela gora argiaren prezioak. Izan ere, 2008ko urtarrilean ez ziren kafearen eta ogiaren prezioak bakarrik igo. Argindarra ere %3,3 igo baitzen. Kuota gainera hilerokoa izatera pasako da.

Erosketak egitera supermerkatuara joan eta fruta, berdura edota esnekiak erostea garesti dago, orain sei urte baino nabarmen gehiago. "Eurotuta" dabilta kontsumitzaileak erosketak ez ezik, erregaiak edota argindarra etenik gabe eta neurrigabe igo direlako.

Kontsumitzaileen elkarteak argindarraren garestitzearen aurka agertu dira Kontsumo Prezio Indizea (IPC, KPI euskaraz) bikoizten duelako. Eta zeintzu dira neurri zorrotz hauen kalteak? Bada, lerro hauen irakurlearen gehiengo, ekonomia txikienean bizi den jendea: herritar eta langilego familia xumeak, alegia.

Espainiako Gobernuak kritikak aurreikusiz, hainbat abantaila iragarri zituen neurri sozial gisa iragarritz. Uztailetik aurrera informazio zuzena eskuratzea komeniko da balizko abantail horiez baliatu ahal izateko. Izan ere, kontsumitzailearen ohiturak aldatzen ez badira, ezustekoa handi samarra izatera irits daiteke, kasu batzuetan faktura bikoizteraino.

Adi egotea komeni da, beraz. Tarifa soziala eta ordukako gastuarekin, adibidez.

**Tarifa soziala.** Kontratututako potentzia doakoa izango da eta kontsumitzen dutenagatik soilik ordain-



ARGIAREN PREZIOA %8,9 IGO DA AURTEN.

duz. Ministerioaren kalkuluen arabera, %16ko aurreztu daiteke horrela.

**Ordukako gastua.** Uztairen 1etik aurrera gaueko tarifa desagertu egingo da eta orduen arabekoak hartu-

ko dio tokia.

Aurrezteko aukeraren alde egiten duenak hamalau orduz argindarra %47 merkeago izango du, 22:00-12:00 ordu tartetean.

## Epe erdira dirua aurrezteko moduak

**%80.** Fluoreszente konpaktuak eta boltaje apaleko halogenoek argitasun berbera ematen dute, 8 bider gehiago irauten dute eta energiaren %80rainoko aurrezkie egiten dute.

**%40.** Plater eta ontziak ikuzgailuarekin garbitzeak, eskuz eta ur beroarekin garbitzearekin alderatuz, kontsumoaren %40aren aurrezkie ekartzen du.

**%33.** Erabiltzen ez duzunean, eduki itzalita telebista, bideoa, musika aparatua, ordenagailua. Stand-by posizioan %33 gehiago gastatuko duzu. Beraz, itzaliz gero horixe aurreztuko duzu.


**%24.** Kontsumo apaleko arropa-garbigailuek uraren %70 eta energiaren

%24rainoko aurrezkie egiten dute.

**%20.** Labea alferrik irekitzen duzun aldiro tenperatura dezente jaitsiko da. Balia ezazu aparatuen erlojua edo txirrri, bestela %20 alperrik xahutuko duzu.

**%15.** Eduki hozkailu eta izzokailuen atzealdea garbi eta aireztaturik; baldintza egokietan badaude, energia gutxiago kontsumituko dute, %15eraino.

**%8.** Aire egokituko aparatuari, 25° C-tik behera, eskatzen diozun gradu bakoitzeko, energiaren kontsumoa %8an areagotuko da. Etxea ondo aineratu eta pertsiak ondo erabiliz gero aire egokitua erabileran dirua aurrez liteke.

KALITATEKO  
**EUSKAL OKELA**  
  
 CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO  
**Beheko kalea, 4**  
**Telf: 943 36 57 42**

**ALKORTA**  
**AUTOZERBITZUA**

**Frutak**  
**Barazkiak**  
**Etxeko produktuak**  
**Izoztuak**

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**  
  
**Obaba kalea 29 · ASTEASU**  
**943 69 68 52 · 620 800 186**

## Aralar alderdia, legegintzaldiko lehen urtean

### “Ahal izan ditugun ekarpen gehien egiten saiatu gara”

**A**ralarrek ez zeukan esperientziarik Udaleko zereginetan eta piskanaka bertako dinamikan txertatzen joan da. Hala aitortu digute Aralar alderdia ordezkatzen duten bi zinegotziek, Lontxo Zubiriak eta Jose Ramon Furundarenak. “Bi zinegotzirentzako lan handia da baina gogotsu ari gara eta ahal ditugun aportazio gehienak egiten saiatu gara”.

Duela bi aste, EAE-ANVko Xabier Mikel Errekondok udal gobernuaren balantzea eskaintzeko aukera izan zuen. Oposizioan diren alderdiei ere aukera hori eskaini die NOAUAlk. Oraingoan, Aralar da aukera hori baliatu duen bakarra. Datozen asteetan, oposizioan diren gainontzeko alderdi guztien balorazioak biltzea litzateke NOAUAl astekariaren nahia. Jaso ahala, argitaratuko ditugu orriotan.



ARALARREKO BI ZINEGOTZIAK, KARGUA HARTU ZUTEN EGUNEAN.

#### GIZARTE ZERBITZUAK

### “Erresidentzia bat beharrezkoa da”

**A**rtzabalgo egoitza irekiko da, Abaina, zoritxarrez, laister lehen eta bigarren solairuetan komonak jartzeko lanak egin beharko dira.

Pozgarria izan da Zaharren Eguneko Zentroa astebukaeratan ere irekitzea.

Duela gutxi udal gobernuak Kalezarreko monjen komentuan zaharrentzako 135 plazako Erresidentzia eraikitzeke aukera aipatu du. Gaur egun 18 usurbildar kanpoko Erresidentzietan daude. Udalarentzako egin berri den azterketa baten arabera, 2020an 65 urte-tik gorako 1.184 pertsona aurrikus-ten dira eta, hauetatik, 125ek gradu ezberdineko dependentsia izango dute. Hauetatik 59k Erresidentzia beharko dute eta 24k Eguneko Zentroa. Herrian Erresidentzia bat egitea beharrezkoa iruditzen zaigu eta proiektua aurkezten denean iritzia emango dugu. Usurbildarrek lehentasuna izatea eskatuko dugu.

#### EUSKARA, KULTURA

### “Kultur taldeen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetu behar da”

**H**erriko kultur taldeek antolatzen dituzten ekintzetarako diru-partida handitu da, baina, hala ere, 27 taldek 155 ekintzetarako eskaerak aurkeztu dituzte eta partida zerbait motza gelditu da. Aurrera begira, teknikariak egindako txosteneko hainbat punturekin ados gaude: ikastaro batzuetarako laguntza hezkuntzatik bidera daiteke, zenbait hitzaldi eta ekintza beste batzordeetara pasa, gastu handiko ekintzak laguntzeko gehieneko kopuru bat zehaztea...

**Kultura Aholku Batzarrean** parte hartu dugu. Udaleko teknikariak lan handia egin du batzarrak aurrera ateratzeko. Partaidetza handia izan da lehen bileretan, baina asko jaitsi da azkenekotan. Bilerak ondo landu behar dira interesa gal ez dezaten. Taldeen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetu behar da, antzeko ekintzak pilatu izan dira denbora-tarte laburrean. Udalak web orri bat izateak asko lagunduko luke horretan. Azkeneko bileretan Potxoeneako beharrak zehazten saiatu gara.

**Potxoenea.** Bertan kultur etxe bat jarri nahi da, batez ere herriko kultur talde ezberdinen beharrak asetzeko: materiala gordetzeko, bilerak egiteko, hitzaldi-entzarako, ekintza artistikoetarako, telefonoa, fotokopiagailua, eta abar, eskura izateko. Bertan komon publikoak jarri. Amek bularra lasai emateko eta umeei pardela aldatzeko areto bat atontzea eskatu du Aralarrek.

Aurrekontuak aztertu zirenean, **gaztetxo eta gazteentzako ludoteka** bat jartzeko eskatu zuen Aralarrek eta, horretarako, Potxoenea proposatu zuen. Udal gobernuak diru-partida bat jarri zuen, baina proposamenean zain gaude.

**Merkataritzan** Buruntzalde-mailan antolatu diren kanpainak babestu ditugu: okindegietakoa eta fruta-dendetakoa.

**Apelliduak abizendu** kanpaina: zabalpen txikia eman zaiola uste dugu.

**UEMA**n partehartze aktiboa izan dugu, ordezkaritza batek batzarretan hartu du parte.

## HEZKUNTZA

## “Gastu handiei egin beharko zaie aurre eta gure kezka agertu nahi dugu”

**H**ezkuntza Mahaian parte hartu dugu. Oposizioko beste taldeek partehartze txikia izan dute. Oraingo haur-eskolaren gaia aztertu da.

**Haur Eskola:** Hezkuntza Mahaitik bideratu da eta Hezkuntza Batzordera informazioa tantaka eraman da. Lantaldeak landutako proposamena Mahaiake gehiengoak onartu du eta, ondoren, haur-eskolak eta Udaregi Ikastolak baiezkota eman diote. Plenotik pasa behar du gaiak. Hitz gutxitan Udalak 0-3 urteko zikloa esleipen publikora aterako du eta Udaregi bertara aurkeztuko da.

Aralar abstenitu egingo da arrazoi

hauengatik: ondo aztertu gabe Partzuegoan sartzeko aukera atzera bota delako (Jaurlearitzak hezitzaile guztien gastuak ordainduko lituzke), Udalak urteroko gastu handi bat bere gain hartzen duelako (138.000 euro urtero, 12 urtetan 1.656.000 euro edo 276.000.000 milioi pezeta) eta kontutan hartu behar da Udalak hezkuntzan jada beste 400.000-700.000 euro gastatzen dituela urtero. Udaregi erakuntza berri baten premian dago, auzoetako eskola txikiak berri egin behar dira, Zumarte musika-eskolaren egoera tamalgarria da... Beraz, gastu handiei egin beharko zaie aurre eta gure kezka agertu nahi dugu.

## KIROLA

## “Lan egiteko gogoia duen jendea topatu dugu Kirol Patronatuan”

**A**ralarrek Kirol Patronatuko **A**lehendakaritza bere gain hartu du eta inplikatuaren parte hartzea bultzatzeari lehentasuna eman zaio, dauden beharrei erantzun asmoz. Aipatu behar da, lan egiteko gogoia duen jendearekin topatu gara, eta, horren ondorioa, urtebetean egin dena. Eskerrik asko!

**Kirol instalazioen** erabilpena arautu da. Oiardoko pistaren erabilpenean arazoak zeuden talde ezberdinen artean, koordinazioa beharrezkoa ikusten zen eta, bide batez, beste kirol eremuetarako ere baliagarriak izango diren arauak zehaztu dira (frontoiatarako, Oiarde kiroldegirako, Harane zelairako).

**Oiarde kiroldegia.** 17 urte bete ditu eta nabaria da hainbat arazo dituela. Igerilekua da arazo gehien ematen ari dena (ikastaro ugari, uraren tenperatura...). Erabiltzaileen kexa ugari jaso dira. Hobekuntzak beharrezkoak ikusi dira: gimnasia-

ko makina berriak sartu dira eta eskaladarako paretak berriak jarri dira. Udazkenetik aurrera eguerdian ere irekitzeko aukera aztertzen ari gara, urtebetez, proba gisa.

**LKS** enpresari eskatu zaio Oiarde kiroldegia egungo egoera aztertzea eta etorkizunerako plan bat egitea. Daukagunarekin zer egin? Nola hobetu? Aurrera begira zer egin? Eta ze lehentasun finkatu? Lortzen den diruaren arabera bideratuko da.

**Buruntzaldea.** Lasarte-Oria, Andoain eta Urnietarekin beste urtebeterako berri dugu hitzarmena. Hernanik bere aldetik egitea erabaki du.

**Kirol elkartee**kin zuzeneko harremani bultzada eman zaie, bilera batzuk egin dira eta beraien beharrik jaso ditugu.

## GAZTERIA

Ez da landu. Beharrak badaude eta zerbait egin behar da.

NEKAZARITZA-  
INGURUMENA

**Sariako hezegunea.** Aurreko legein-tzaldian hasitako lanaren ondoren Udalak lurra erosi ditu eta eremua babes-teko proiektua Jaurlearitzan dago. Laister hezeguneetako hegaztiez eta landareez gozatzeko aukera izango dugu. Aurrera begira ea Sarikolako liho-lantegi zaharra eta Itzaoko lurra eskuratzeko modua egiten den.

**Zaborren gestioa.** Udazkenean atez ateko bilketa abian jarri nahi da eta denon partehartzea beharrezkoa izango da. Kataluniako hainbat lekutako esperientziak ikusita, posible da zaborren %70-80 aparte biltzea eta birziklatzeko zirkuituetan sartzera.

## HIRIGINTZA

**H**il honetan aztertuko dira **Arau Subsidiarioak.** Aurretik egin zirenak Foru Aldundira aurkeztu ziren eta zuzenketak eskatu zitzaizkion Udalari. Orain zuzenketak horiek onartu eta testu batekina aurkeztu behar da berriz Aldundira. Erabaki garrantzitsuak hartzeko ordua izango da.

**Bidegorriak.** Plan bat diseinatzea eskatu dugu.

## GENEROA

**G**enero-berdintasuna landu nahi da. Teknikari bat kontratatu nahi dute lanaldi erdira.

**Emakumeenganako tratua txarrekin** lotuta antolatuta diren ekintzak onak izan dira, baina, komunikazioa txarra izan denez, jendearen partehartzea eskasa izan da. Argitaratu ziren egutegi txikiak hurrengoan asko hobetu beharko dira.

SOLIDARITATEA,  
NAZIOARTEA

**A**ralarrek aurkeztutako **Sahararen Aldeko mozioa** aho batez onartu zen. Poztu gara, ikusita, aurtan bi diru-partida aprobata direla sahararren kanpamentuetako garraio-azpiegitura hobetzeko eta Aaiungo Wilayan emakumearen etxeari laguntzeko. Urte hasieran Sahararen alde egin zen janari-bilketa kanpainaren alde 3.000 euro eman zituen Udalak.

## Jende asko animatu da Pirinioetara doan mendi martxara

**A**ndatza Mendi Elkaratek Pirinioetara doaz asteburu honetan. Asko izan dira izena eman dutenak baina gutxi aurreko asteko bilerara azaldu zirenak. Ohar baten bidez zera jakinarazi nahi du Andatza Mendi Elkaratek: "irteera uztailearen 12an larunbata, goizeko 6:00etan izango da kiroldegi aurretik".

Larunbatean, autobusak, Eriste herrian utziko ditu mendizaleak, mendiko botak jantzi eta Angel Orus (Forcau) aterperako bidetari ekingo diote (3 ordu inguru). Larunbatean bertan, aterpetik Llardanako lakuetara joan-etorria egingo dute.

Afaria, loa eta gosaria Angel Orus



LARUNBAT HONETAN, GOIZEKO 6:00ETAN ABIATUKO DA KIROLDEGI AURRETIK MENDI MARTXA.

aterpean bertan egingo dituzte. Norberak lotarako zakua eta bi egunetarako bazkaria eraman beharko ditu.

Igandean, Bardamina mendia (3.079 m) igoko dute, aterpetik abiatu eta bost ordu inguruko igoera izango da.

## Agur beroa jaso zuen

### Joxe Miel Peñagarikano aizkolariak

**J**oxe Miel Peñagarikano aizkolariak txalo ugari jaso zituen igandean, jaietako azken egunean. Aurten erretiroa hartzea erabaki du Peñagarikanok, baina zeharka bada ere, herri kirolei lotuta jarraituko du. Beizamakoak azken 12 urteak egin ditu Usurbilen. Aurreko

igandean, Aizkolarien 2. Mailako Euskadiko finalurrekoaren saioa amaitu berrian, erakustaldi ederra eman zuen. Oraindik sasoi onean dagoen seinale. Agurreko saioa irabazi eta gero, oroigarri bat jaso zuen alkatearen eskutik. Eta bertaratutakoekin txalo zaparrada.



ALKATEAREN ESKUTIK OROIGARRI BAT JASO ZUEN PEÑAGARIKANOK.

## Buruntzaldeko kirol batzordeek hitzarmen berri bat sinatuko dute

**2**008ko uztailearen 11n, 12:00etan, Lasarte-Oriako Udaleko batzar-aretoan Buruntzaldeko udalerrien kirol arloko elkarlan hitzarmen berriaren aurkezpena eta sinaketa egingo da. Hitzarmen horretan Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalerriek osatuko dute eta udal horietako ordezkariak bertaratuko dira.

Hitzarmen berri honek dituen abantailen berri emango da prentsaurrekoan. Halaber, 2008ko irailetik aurrera erabili ahal izango dituzten udal kirol zerbitzuez.

Aipatzekoa da hitzarmen horretan ez dagoela Hernaniko Udala. Ikusi behar zer ondorio izango dituen Buruntzaldeko gainontzeko erabilitzaileentzat, Hernani hitzarmenetik kanpo geratzeak.

## Nafarroa nagusi Pilota Txapelketako bi finalatan

**T**radizioari jarraiki, Santixabel egunean jokatu ziren Usurbilgo Pilota Txapelketako finalak.

Jubencil mailan, Zabaleta eta Martin Goizuetako pilotariak nagusitu ziren. Nagusien artean, Arraztoa eta Girones Burlatako bikotea izan zen jaun eta jabe uztailearen 2an jokatu zen finalean.

Txapelketako jokalaririk onenak, ordea, Zabaleta eta Arraztoa izendatu zituzten.

Zorionak partehartzaile denei. Datorren urtean XXXVII. edizioa iritsiko da Usurbilgo Pilota Txapelketa.



## Agenda !

**Uztailak 12 larunbata**  
- Pirinioetara mendi martxa.  
Goizeko 6:00etan irteera, kiroldegi aurretik. Antolatzailea: Andatza Mendi Elkartea.

**Uztailak 13 igandea**  
- "Trastornos" antzezlan Sutegein.  
20:00etan. Sarrera, 3 euro.

**Uztailak 14 astelehena**  
- Jai Batzordearen bilera. 19:00etan Sutegein erakusketa aretoan.

### KzGunea

#### IT ZIURTAGIRIA, AZTERKETAK

Uztailak 18, 18:00-20:00

Uztailak 24, 16:00-18:00

Uztailak 28, 16:00-18:00

#### MINTEGIAK

##### Sinadura elektronikoa

Uztailak 11, 18:00-20:00

##### Sinadura elektronikoa

Uztailak 16, 18:00-20:00

##### Sinadura elektronikoa

Uztailak 21, 16:00-18:00

**Uztailean arratsaldez.**  
Ordutegia: 16:00-20:00. Kale Nagusia, 37. Tf: 943 36 14 12.

## Igande honetan, antzerkia Sutegein

**D**onostiako Arte Eszenikoen tailerreko ikasleek "Trastornos" antzezlan eskainiko dute igande honetan Sutegein. 20:00etan hasiko da; sarrera, 3 euro.

Gaixotasunetik egiten den erreflexioa da. Bost pertsonaia dira, bost emakume. Agertu eta desagertu egiten dira, elkartu eta urrundu. Hitz egin egiten dute eta errealitatea eta mundua beraien ikuspegitik interpretatzen dute. Bost aktore dira antzezlan honetan ikusiko ditugunak: Klara Intxausti,



20:00ETAN HASIKO DA TRASTORNOS SAIDA, SARRERA 3 EURO.

Idoia Perales, Nagore Arruti, Mari Mar Marcos eta Laida Piñeiro. Bostak, Donostiako Arte Eszenikoen Tailerreko 3. kurtzoko ikasleak.

## Udalaren lan-deialdia

**U**surbilgo udalean, Administrari Laguntzaileak aldi baterako kontratazeko edo interinoki izendatzeko beharrak sortzen direla eta momentu honetan ez dago indarrean inolako lan poltsarik.

Administrari laguntzaileen lan poltsa berriak egiteko premiazko prozedurari ekitea beharrezkoa dela aipaturiko aldi baterako beharrei erantzuteko.

Kontutan harturik, indarrean dagoen lege-diak ematen dizkion eskumenak erabiliz, eta batez ere, honako xedapen hauek:

- Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituzten apirilaren 2ko Legearen 21.1.g) eta 102 artikulua.
- Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko

Estatutuaren 7/2007 Legearen 10., 11., 55. eta 56 artikulua.

- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailearen 6ko 6/89 Legearen 33. artikulua.

Honen bitartez Alkatetza honek honako hau, erabaki du:

- Usurbilgo udaleko Administrazio Orokorreko Eskalan Administrari Laguntzaileak interinoki aldi baterako izendatu edo lan-itunpeko Administrari-Laguntzaileak kontratatzeke sor daitezkeen beharrak hornitzeko lan poltsa osatzea. Lan-poltsa honen iraupen epea honako hau izango da: 2011ko irailaren 30a.

- Aipaturiko lan poltsaren zerrendaren osaketa arautzen duten Oinarriak onartzea.

### GOARDIAKO FARMAZIA

Uztailak 10, osteguna  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 11, ostirala  
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Uztailak 12, larunbata  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte  
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil\*

Uztailak 13, igandea  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 14, astelehena  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Uztailak 15, asteartea  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 16, asteazkena  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Uztailak 17, osteguna  
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Uztailak 18, ostirala  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 19, larunbata  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte  
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil\*

Uztailak 20, igandea  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
Correa Farmazia (22:00-09:00), Perkaiztegi  
kalea, 8 Hernani 943 33 60 22  
\*Usurbilen, soilik eguerdira arte

**CLIMATA-T**  
Klimatizazio orokorra

687 858 390  
climata\_t@yahoo.es

**www.noaua.com**  
USURBILGO ATARIA

**Ford**

**Usurbil Autoak, S.C.L.**  
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,  
Aitzearra kalea, 1.  
20170 USURBIL  
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

## ETXEBIZITZA

- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte oso-rako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 49.800.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut Txaramunto etxean. Deitu 19:00etatik 21:00era 607582968 telefonora.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila

- gabilta. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urte-koa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajejan egondakoa. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaintzak

- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- "Agiña Piperrak" enpresak, emakumeei zuzendua. Uztailearen erdi aldera hasi eta urriara arte lana egin nahi duenak piperrak ontziratzeko azaldu dadila enpresatik goizeko 9:00etatik 13:00era. Laneko ordutegia goizeko 06:00etatik 14:00ak arte izango litzateke, astelehenetik ostiralera.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Irailean hasteko eta astean hamasei orduz (ordu eta erdi goizean eta bi ordu arratsaldean), bi ume zaintzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. 635 755 666 edo 943 314 709.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabilta. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

## Lan-eskaerak

- 18 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da uztailean goizez edo arratsaldez haurrak zaintzeko. 621626500

- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portakal eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Uztailearen 4an ospatuko den BBK Live Festivalerako bi sarrera salgai, 145 eurotan. Deitu: 637 001 620.
- Betaurreko batzuk galdu genituen ekainaren 20an, arratsaldean, Ardi Beltz garagardotegi parean. Aurkitu badituz: 943 370 249.
- Txandal baten jertsea galdu da, urdin argia eta Adidas markakoa. 10 urteko ume baten tamainakoa. 943 37 68 97.
- Belarra mozteko eta fardoak egiteko zerbitzua. Tel: 607457004 Dani.
- 1,5 metroko somierra eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberrian umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriei eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Kotxeko aulkixoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikiritza bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



**Zorionak Eñaut!**  
Uztailearen 13an 3 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu potolo bat etxeko guztien partez.

**Zorionak Enaut, Elene, Julen, Jon eta Maitane!**  
Uztailean 7 urte handi egiten dituzuelako. Ondo ondo pasa guraso, eta lagunen partez



**Zorionak Amets!**  
Uztailearen 8an 5 urte egin zituen, zorionak eta muxu bat etxekoen partez eta bereziki zure arreba Maddirentzat partez!

**Zorionak Maider!**  
Uztailearen 6an egingo ditu 3 urte gure etxeko printzesa txikiak. Txokolate eta marrubizko muxuak Udane, gurasoak eta gainontzeko guztien partez. Zorionak!



## JAIOTZAK

Aloña Otxotorena Illarramendi, ekainaren 20an  
Noa Arruti Arruti, ekainaren 24an  
Aimar Iraeta Agirre, ekainaren 26an

## HILDAKOAK

M.<sup>a</sup> Jesus Zuriarrain Barrena  
Uztailearen 2an hil zen 86 urterekin  
Txikierrin, Usurbil.



www.noaua.com  
usurbildarron zerbitzura



# DONOSTIKO GAZTAHAUNDIYAI

1

Metro-terdi ba ote da?  
neurtuaz goitikan bera,  
una kuarenta besorik beso  
nere arabera!  
lepo gañen gaztanbera,  
farola baten tankera,  
ta errespetoik bate eztuen  
txulo ibilera! (bis)

2

Gabardina eta guzi!  
behin ala nuen ikusi.  
Bulebarrean desapiyoka  
temati, itxusi!  
baztar guztiyak nahasi,  
ta oaindik eztek ikasi!  
bukatu arte ezin dekela  
gerrik irabazi! (bis)

3

Hiru proiektu garatu,  
ta hirurak aukeratu  
Herriyak danak gaitzetsi arren  
heurea inposatu!  
amets bat nahi dek gauzatu,  
hari begira gozatu,  
nahiz hortarako auzo oso bat  
golpez lurperatu! (bis)

4

Erraustegi ta kuartela,  
hirugarrena kartzela.  
Ez omen zeudek ondo Donostin,  
aitzaki ustela!  
Ez adi izan ergela,  
aitor beharko dek bela,  
hau dena hire patrikak diruz  
betetzeko dela! (bis)

5

Jendia etziok alai  
berriz esango diat bai.  
Makrokartzelik eta kuartelik  
eztiagula nahi!  
Baño hire ustetan ai!  
kokatu ditzazket nonahi,  
jar hitzak biyak mirakontxan ta  
bertan bizituai! (bis)

6

Erraustegiyaren sua,  
hire atzerapausua!  
Sutan konponduz gizakiyaren  
zabor arazua.  
Ez hadi izan izua!  
Hartuzak konpromezua!  
Ez badek ketan itotzerik nahi  
Zubita osua! (bis)

7

Hamaika burutazio,  
beste hainbeste akzio.  
Gaur gure lurrak, bihurtu dituk  
hire obsesio.  
Obra eta txikizio,  
berdin zaik ze kondizio!  
Hiretzat txarra dena ez zaio  
iñori desio! (bis)

8

Entzunzak aurrerantzean,  
erabakiak hartzean,  
belar txarrikan ez diagu nahi  
gure baratzean!  
proiektuez gozatzean,  
oraitzapen bakoitzean,  
negar malkoak alperrik dituk  
Zubieta hiltzean! (bis)